



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko otsailaren 24a

37. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratzen duen azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legea indargabetzen duena. EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek aurkeztu dute (3. or.).
- Foru Lege proposamena, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun langileei zabaltzen diena. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako hezkuntza-sistemaren barruan beken arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sakonki eta xeheki azter dezan Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntzako gradua ezartzeko aukera. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen baitu 2017rako gutxieneko pentsioak eta alargun-pentsioak igo ditzan. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Soldata-berdintasunaren Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Justizia Sozialaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiazen baititu militar talde batek Nafarroako Lehendakariaren aurka botatako irainak. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, 2016an egindako maisu-maistren oposizioak direla-eta sortutako egoerari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, 2016an egindako maisu-maistren oposizioetan lanpostua lortu zuten izangaiekin WhatsApp-eko talde bat egiteari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, familiei eta haurrei laguntzeko plan berriari buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (10. or.).
- Galdera, familiei eta haurrei laguntzeko plan berrian parte hartzeko bideei buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak Geoalcali enpresari eskatutako Muga Meategia Proiektuaren Testu Bateginari buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, jakiteko ea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ere uste duen Mina Muga proiektuari Ingurumen Baimen Integratua eta Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa aplikatu behar zaizkiola, eta ez soilik IEA. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Espazioako Klimarako Espainiako Babes Zibileko Elkartek eta EMPk (AEPCCCE) egindako proposamena dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legean ezarritako aurreikuspenak betetzeari eta Mina Muga proiektuari buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko organoen eta ehunen emate eta transplanteei buruzko programaren koordinaziorako eta kalitaterako egiturak erregulatzen dituen irailaren 15eko 69/2016 Foru Aginduari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (16. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratzen duen azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legea indargabetzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parla-mentu-taldeek Foru Lege proposamena aurkeztu dute, Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontsei-lua eratzen duen azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legea indargabetzen duena, eta irakurketa baka-rrean izapidetzea eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERA-BAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratzen duen azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legea indargabetzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. arti-kuluan ezarritako ondorioetarako.

**3.** Foru lege proposamen hori irakurketa baka-rreko prozeduraz izapidetzea.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aur-keztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratzen duen azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legea indargabetzen duena****ZIOEN AZALPENA**

1995eko ekainaren 8an onetsi zenetik Lan Harremanei buruzko Nafarroako Sektorearteko Akordioa, elkarrizketa eta itun sozialerako estrate-gia bat jarri zen abian Nafarroan UGT eta CCOO sindikatuen eta CEN enpresaburuen elkartearen artean. Nafarroako Gobernuak ere bat egin zuen estrategia horrekin, zeinak bazterkerian oinarrituri-ko eredu bat ezarri baitu.

Itun sozialerako eredu horrek garapen bat izan du urte hauetan guztietan, onetsi izan diren akor-dio eta enplegu planen bidez. Horiei esker, bai sin-dikatu sinatzaileek bai patronala hitzarmen izen-dunen onuradun izan dira. Horrek milioietako gastua ekarri du, onuradun horientzat finantzatze-iturri garrantzitsua izan dena.

Horrekin lotuta, Gobernuaren 2013ko irailaren 25eko Erabakiaren bidez sortu zen Elkarrizketa eta Itun Sozialerako Mahai Iraunkorra, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari atxikita. Mahai horretan parte hartzen zuten lehen aipatu sindikatu berberak, bai eta Nafarroako patronalak eta Gobernuak ere, eta, hala, ituntze mota hori finkatu egin zen.

Elkarrizketa sozialerako eredu horren xedea izan da, agerikoa denez, bestelako eragile ekono-miko eta sozialak baztertzen dituen “bake soziala” lortzea; izan ere, parte hartzea eta negoziazioa bi sindikatu horietara eta patronalera mugatu da, eta jokamolde horren gorena izan zen Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratzen duen azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legearen onespe-na. Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua iragan legegintzaldiaren amaieran sortu zen, presaka, eta beste garai bateko elkarrizketa sozialeko

eredu baten zerbitzurako jaio zen; hain zuzen, eredu agortu baterako. Horrenbestez, Nafarroaren-tzako aldaketa politiko eta sozialerako garai haue-tan beharrezkoa da eredu hori gainditzea.

Gainera, ezin da ahaztu Nafarroan badirela parte hartze instituzionalerako beste organo ba-tzuk, hala nola Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, martxoaren 9ko 2/2006 Foru Legearen bidez arautua. Bertan eragile sozial eta ekonomiko gehiagok parte hartzen dute, eta egokia izan liteke Elkarrietzako Sozialerako Kontseiluari esleitu nahi zitzaizkion eginkizunetarako. Gaur egun, Ekono-mia eta Gizarte Kontseiluak azpi-erabilia izaten jarraitzen du, eta organo horrek ederki asko har li-tzake bere gain elkarrietzako sozialerako eginkizu-nak, parte hartze askoz ere zabal eta anitzago batekin.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Elkarrietzako Sozialerako Kontseilua eratzen duen 22/2014 Foru Legea, azaroaren 12koa, indargabetzen da.

**Lehenengo xedapen iragankorra.** Alor hori arautzen duen araudi berria onetsi bitartean, indargabetzen den azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legearen 3. artikuluan aurreikusitako eskumenak martxoaren 9ko 2/2006 Foru Legearen bidez arau-tutako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari esleitu-ko zaizkio.

**Azken xedapena.** Indar hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale-an argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun langileei zabaltzen diena.**

### **ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2017ko otsailaren 16an eginda-ko Osoko Bilkuran, erabaki zuen honako foru lege proposamen hau aintzat hartzea: "Foru Lege pro-posamena, lanbide karreraren sistemaren aplika-zio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun langileei zabaltzen diena". Proposamen hori Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2017ko urtarrilaren 12ko 8. Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Ba-tzarrari entzun ondoren, hona

#### **ERABAKIA:**

**1.** Prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin Foru Lege proposamena, lanbide karreraren siste-

maren aplikazio esparrua Osasun Departamen-tuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabe-ko beste osasun langileei zabaltzen diena.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakarietzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldiz-kari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost** egun balioduneko **epe bat hasiko da, 2017ko martxoaren 20ko eguerdiko hamabietan buka-tuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parla-mentu-taldeek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako hezkuntza-sistemaren barruan beken arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa.**

*CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkezturiko jabeldura, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako hezkuntza-sistemaren barruan beken arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa.

**2.** Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **JABELDURAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Carlos Gimeno Gurpeguik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Ekitatean oinarritutako hezkuntza-politika bat da denok berdinean egiten gaituen bakarra, zein ere

den gutako bakoitzaren egoera sozioekonomikoa; eta hori lortzeko funtsezko tresnetako bat da ikasteko arazo ekonomikoak dituzten herritar guztien gana heltzen den beka-politika bat ezartzea. Batek, arazo ekonomikoek eta, bestetik, aurrekontu-zuzkidurak eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak 2016-2017 ikasturterako ezarritako beka-politikari buruzko kudeaketa-erabakiek –irizpide eta arau berriak ezarri dira beka eta laguntzen deialdi orokorrean– berekin ekarri dute foru erkidegoan eredu-aldaketa bat gertatzea, zeinaren ondorioz aldaketa handi bat eman baita Hezkuntza bezalako oinarritzko eskubide batean, eta aldaketa horrek eragina dauka arazo ekonomikoak dauzkaten ikasle zehatz batzuen, batik bat hezkuntza-aukeren ziurtasunari eta etorkizunari dagokienez.

Jabelduraren testua:

Nafarroako Gobernuarentzako jabeldura, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak Nafarroako hezkuntza-sistemaren barruan bekarloan darabilen politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2017ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sakonki eta xeheki azter dezan Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntzako gradua ezartzeko aukera.**

### **BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita sakonki eta xeheki azter dezan Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntzako gradua ezartzeko aukera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Bakartxo Ruiz Jaso andereak, EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Parlamentuko Erregelamenduari jarraiki, honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Medikuntza gradua NUPen ezartzeko aukera sakon aztertzea aspalditik mahai gainean dagoen eskaera soziala da. Zalantzarik gabe, eztabaida sozial eta politiko luzea izan du afera honek. Hala erakusten dute Parlamentuan bertan izandako hamaika ekimen eta eztabaidak, eta 2009an Parlamentuaren gehiengoak eskatutako bideragarritasun planak. Parlamentuak eskaera egin eta NUPEk aholkularitza-enpresa bati enkargatu zion txostena.

Ondorioak garbiak ziren: 60 plazako gradua ezarrita, eta eraikin berria eginez gero, 6 urtean 18,5 milioiko inbertsioa beharko litzateke. Erizaintza Eskolako eraikin batzuk baliatuta, 15,5 milioikoa. Inbertsio horretaz gain, NUPEk bere egitura akademikoa egokitu, departamentu berriak sortu eta hainbat katedratiko, irakasle titular eta kontratupeko irakasle kontratatu beharko litzuzke.

Zortzi urte luze pasa dira, jakina, eta bideragarritasun plan hau egokitu eta gaurkotu beharko litzateke. Akordio programatikoak berak konpromiso

argia jasotzen du Medikuntza Gradu publikoa ezartzeko aukera serio eta sakon aztertzeko.

Illo honetan, 2016ko urriaren 6an galdera egin genion Hezkuntzako Kontseilari José Luis Mendonza jaunari, eta Osoko Bilkuran adierazi zuen bideragarritasun azterketa "berehala" egiten hasiko zela Gobernua, bildutako datuetatik abiatuta.

Bide beretik, 2016ko azaroaren 2an NUPeko Errektore Alfonso Carlosena Parlamentuan izan zen titulazio-plan berriaren inguruko azalpenak ematen eta, tartean, Medikuntza Gradua ezartzeko aukeraz ere aritu zen. Argi esan zuen Zuzendaritza Taldeak uste duela NUPek eskaintza hori egin beharko lukeela. Hainbat arrazoi zehaztu zituen, baita zailtasunak ere. Edozein modutan, proiektuak Gobernu osoaren inplikazio argia beharko lukeela adierazi zuen, eta inoiz halakorik gausatuko bada, lanean hasteko unea hauxe zela.

Jakitun gara 2009tik hona hainbat gauza aldatu direla; egoera ekonomikoa, esaterako. Baina beste baldintza eta arrazoi objektibo batzuk badaude gai honi seriotasunez ekiteko. Hasteko, gaurkotasuna dauka eskaera honek, eta hala erakusten dute NUPEk egindako azken inkestek. Jendartearen %84ak uste du NUPEk titulazio gehiago eskaini behar dituela, eta horietatik %51k uste du Medikuntza eskaini beharko lukeela. Bestetik, urtero batez beste 86 ikaslek egiten dute espediente lekualdatzea Medikuntza Nafarroatik kanpo edo unibertsitate pribatuan ikasteko. Eta luze hitz egin liteke, azkenik, NUPen eskaintza urriaz, bereziki zientzia eta Osasun eremuan.

Iragan urtarilaren 10ean Mendonza Kontseilariak Hezkuntza Batzordean azalpenak eman zituen orain arte egindakoaz, eta hainbat konpromiso ere azaleratu zituen. Hainbat bilera izan direla aipatu zuen, eta lantalde bat sortzeko asmoa aipatu zuen, Garapen Ekonomiko, Osasun eta Hezkuntza Departamentuez gain, NUPeko Errektoretza ere bilduko zuena. Lantalde horrek garatu beharreko lan batzuk ere aipatu zituen.

Parlamentu-talde honen aburuz, oso berandu ekin zaio afera honi eta bideragarritasun azterketa egitea ezin da gehiago atzeratu, honezkero egina beharko zuelako. Momentu klabea da NUPerako, bere etorkizuneko argazkia definitzen ari delako, titulazio berriak txertatuz eta plangintza osoa egi-

nez. Erabaki akademiko eta politikoak hartzeko garaia da, beraz.

Horrexegatik guztiarengatik aurkeztu dugu honako erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio, NUPeko arduradunekin elkarlanean, Medikuntza Gradua NUPen ezartzeko aukera sakonki eta xeheki aztertzeko. Horretarako, 2009an egindako bideragarritasun plana gaurkotu

egingo du, aldagai guztiak egokituz, aztertuz eta objektiboki arrazoituz. Gobernuak Bideragarritasun Plan berria eta gaia lantzeko osatutako lantalde horrek egindako hausnarketa eta ateratako ondorioak sei hilabeteko epean aurkeztuko ditu Nafarroako Parlamentuan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen baitu 2017rako gutxieneko pentsioak eta alargun-pentsioak igo ditzan.**

### **ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuaren ustez, Espainiako Gobernuak 2017rako gutxieneko pentsioak eta alargun-pentsioak igo behar ditu estatu osoan,

Nafarroako Foru Komunitateak egiten duen bezala, abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuak ekitaldi honetarako ezarritako lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa egin arte.”

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Soldata-berdintasunaren Egunaren ospakizunarekin.**

### **ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak aurten ere bat egiten du Soldata-berdintasunaren Egunaren ospakizunarekin, heldu den otsailaren 22an egiten baita.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela Espainiako Gobernuak emaku-

meen eta gizonen arteko soldata-berdintasunari buruzko lege bat lehenbailehen gara dezan, ordainsari-desberdintasuna desagerrarazi eta etxeko eta zaintzako lanetan emakumeek jasaten duten gaitzakeria amaiera emateko.”

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza



## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Justizia Sozialaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak aurten ere bat egiten du Justizia Sozialaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, behar-beharrezkoa da Espainiako Gobernuak babes soziala dela-eta darabiltzan politikak aldatzea, inor

ere ez dadin kanpoan geld, azken urteotan egindako murrizketak inbertitzea eta apustu egitea gizarte-kohesio handiagoaren, garapen ekonomiko jasangarriaren, fiskalitate bidezkoagoaren, lanbaldintzak hobetzearen, politika aktiboak garatzearen eta kalitatezko hezkuntzaren alde.”

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiazen baititu militar talde batek Nafarroako Lehendakariaren aurka botatako irainak.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere arbuiorik erabatekoena adierazten du militar talde batek Nafarroako Lehendakari Uxue Barkos Berruezo-ren aurka botatako irainengatik, eta bere elkartasunik zintzoena helarazten dio.

2. Nafarroako Parlamentuak aitortu eta defendatu egiten du eskuin muturreko taldeen edo funtzionario polizialen biktimen omenez Nafarroako Gobernuak otsailaren 18an antolatutako ekitaldiaren zilegitasuna, zeina 16/2015 Foru Legean jasotzen baita, Konstituzio Auzitegiak espresuki bai-

mendu baitu eta Auzitegi Nazionalak bermatu baitu.

3. Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten du militar horiek erakutsitako demokraziaren aurkako jarrerak direla-eta, bereziki larriak direnak Armadako kideak diren aldetik, eta onartezinak giza eskubideak errrespetatzen diren gizarte batean.”

4. Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten du edozein kargu publikok bere jarrera politikoak direla-eta jasotzen duen irain oro.”

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, 2016an egindako maisu-maistren oposizioak direla-eta sortutako egoerari buruzkoa.***ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, 2016an egindako maisu-maistren oposizioak direla-eta sortutako egoerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera, Legebil-

tzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezte du, idatziz erantzun dakion:

– Zein egoera sortu da 2016an egindako maisu-maistren oposizioan, dirudienez Pedagogia Terapeutikoko espezialitateko behin betiko puntuazioetan atzemandako akatsengatik?

– Departamentuak kasuren bat egiaztatu al du, otsailaren 11ko datarekin, zeinetan akatsak atzeman diren behin betikotzat jo ziren puntuazioetan? Zenbat?

– Departamentuak egiaztatze orokorren bat egin behar du?

– Zer eragin izan dezake inguruabar horrek plaza eskuratu duten izangaiantzat?

– Zer eragin izan dezake kontratazio-zerrendan?

Corellan, 2017ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, 2016an egindako maisu-maistren oposizioetan lanpostua lortu zuten izangaiekin WhatsApp-eko talde bat egiteari buruzkoa.**

**ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, 2016an egindako maisu-maistren oposizioetan lanpostua lortu zuten izangaiekin WhatsApp-eko talde bat egiteari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Alberto Catalán Higuera, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako

galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Hezkuntzako Departamentuak WhatsApp-eko talde bat sortu al du 2016an egin ziren maisu-maistren oposizioetan plaza eskuratu zuten izangaiekin?

– Legezko zein araubideri jarraikiz sortu du?

– Departamentuak ba al du pertsona horien alde aurreko baimenik, haien datu pertsonalak –kasu honetan, telefono-zenbakiak– Departamentuak erabil ditzan WhatsApp-eko talde bat sortzeko?

– Ohikoa al da Departamentuan datu pertsonalak erabiltzea WhatsApp-eko taldeak sortzeko edo antzeko zereginetarako, alde aurreko baimenik gabe?

– Departamentuak aztertu al du erabilera horrek, interesatuen alde aurreko baimenik gabe, urratzen ote duen datu pertsonalak babesteari gaineko araudia?

– Departamentuak ba al du gaiaren gaineko txosten juridikorik?

Corellan, 2017ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, familiei eta haurrei laguntzeko plan berriari buruzkoa.**

**MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, familiei eta haurrei laguntzeko plan berriari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak idatziz erantzun ditzan:

Familiei eta haurrei laguntzeko plan berriari dagokionez:

– Egin dituzuen bileretan egon diren elkarte eta entitate publiko edo pribatuen izenak. Nola egin zaie deialdia? Parte hartzeari uko egin al dio inork?

– Elkarte eta entitateekin eztabaidatu eta landu diren gaiak. Zenbat gai eta eduki zehaztu dira planaren garapenerako?

– Elkarte eta entitateekin egindako bileren ekarpenak eta konklusioak. Zein ekarpen izan dira, eta zer konklusio atera dira ekarpen horietatik?

– Familiei eta haurrei laguntzeko plan berria prestatzeko antolatu diren lan-mahaiak. Zenbat lan-mahai egin dira, eta zenbateko maiztasunez?

– Nortzuk dira lan-taldearen partaide, eta nork koordinatzen ditu bilerak eta lan-mahaiak?

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

## **Galdera, familiei eta haurrei laguntzeko plan berrian parte hartzeko bideei buruzkoa.**

### **MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, familiei eta haurrei laguntzeko plan berrian parte hartzeko bideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak idatziz erantzun ditzan:

Familiei eta haurrei laguntzeko plan berriari dagokionez:

– Parte hartzeko zein bide izan dira haur eta familiekin esku hartzearekin lotura duten oinarriko laguntzako eta laguntza espezializatuko gizarte zerbitzuen alorreko profesionalen artean?

– Zein pertsona eta entitate daude lan-taldeen? Nola jarri dira harremanetan profesional espezializatuak eta gogoeta-mahaiak familiekin eta eragile sozialekin?

– Ezarri al da partaidetza-biderik Gobernu Irekiaren Gardentasun Atarian?

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

## **Galdera, Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak Geoalcali enpresari eskatutako Muga Meategia Proiektuaren Testu Bateginari buruzkoa.**

### *DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak Geoalcali enpresari eskatutako Muga Meategia Proiektuaren Testu Bateginari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhua Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Dabid Anaut Peñak, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari:

Parlamentu-talde honek jakin duenez, Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak eskaera bat egin dio Muga Meategia Proiektuaren sustatzailea den Geoalcali enpresari, Muga Meategia Proiektuaren Testu Bategina idatz dezan.

Dokumentu hori, hain zuzen ere, espedienteak izan dituen askotariko aldaketak egoki definitzeko eta elkarrekin lotzeko eskatu da (meatze-ahoa,

garraio-zintak, ustiatze-eremuak, plantaren egoera, txosten berriak, adenda ekonomikoak, linea elektrikoak, errepideak, baltsak, egindako errekerimenduei emandako erantzunak ... ).

Testu bategin hori egindako askotariko aldaketen bilduma denez –eta horietako batzuk funtsezko aldaketak dira–, parlamentu-talde honen ustez ezinbestekoa da Muga Meategiaren Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioaren espedientea jendaurrean berriz jartzea, gure lurraldeari eta bertako biztanleei eragiten dieten proiektu handien tramitazioan gardentasuna berma dadin. Akordio programatikoa jasotako printzipio garrantzitsua da, izan ere, gardentasunarena.

– Ezagutzen du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak espedientearen sartuko diren eta testu bateginean jasoko diren aldaketen eraginaren norainokoa? Zein da aldaketa horien zerrenda edo aurkibidea?

– Egin al du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak inolako kudeaketa-lanik Muga Meategiaren Proiektuaren Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioaren Kudeaketarako Enkomienda sinatu zuten gainerako erakundeekin (Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Ebaluaziorako Zuzendaritza Nagusia eta Aragoiko Gobernua), testu bategin hori jendaurrean jar dadin?

– Konfirma al dezake Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak testu bategin hori jendaurrean jarriko dela?

Iruñean, 2017ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

## **Galdera, jakiteko ea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ere uste duen Mina Muga proiektuari Ingurumen Baimen Integratua eta Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa aplikatu behar zaizkiola, eta ez soilik IEA.**

**DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ere uste duen Mina Muga proiektuari Ingurumen Baimen Integratua eta Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa aplikatu behar zaizkiola, eta ez soilik IEA.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Dabid Anaut Peñak, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuari:

Parlamentu-talde honek Muga Meategiaren jarduera baimenari buruz egindako galdera bati erantzunez, Nafarroako Gobernuak esan zuen Muga Meategia 4/2005 Legearen IIIB Eranskineko A) Ataleko 2. puntuan kokatzen dela.

Itxura denez akats bat dago aipatu den puntuari dagokionez, ematen baitu dagokion puntua IIIC Eranskineko A) Ataleko 2.c dela.

Puntu horrek honela dio, hitzez hitz:

“C) Nolanahi ere ingurumen eraginaren ebaluazioaren menpe soilik jarriko diren jarduera eta proiektuak.

A) Erauzpen industria.

2. Lurpeko meatzaritza honako ezaugarriak dituzten ustiapenetan:

c) Meategiak hiriguneetatik 1 kilometro baino gutxiagora dituztenak (planoan neurtuta), subsidentziaz arriskurik eragin lezaketenak.

*Kasu guztietan minerala tratatzeko, meategieta edo aprobatxamendu mineralurgikoko esterilak aldi batez pilatzeko edo hondarrak biltzeko (zabor-tegiak, presak eta urmaelak edo esterilak, birrinketa plantak edo planta mineralurgikoak eta abar).”*

Bistan denez, puntu honek erauzketa eta birrinketa lanak egiten dituzten lurpeko meatzaritzako kasuei soilik egiten die erreferentzia, mea eraldatu gabe alegia. Horregatik dio “ingurumen eraginaren ebaluazioaren menpe jarriko dira soilik”. “Nolanahi ere ... soilik” hori ulertzeko kontuan izan behar da beste atal bateko zirkunstantziak ez direla gertatzen, Muga Meategian gertatzen den moduan.

Agerikoa da Muga Meategia Proiektuan mearen lurpeko erauzketa dagoela alde batetik, eta horrekin batera potasa eta ongariaren ekoizpena, lurgaineko planta batean, mearen eraldaketa kimikoa eginez eta produktuak manipulatu.

Horrenbestez, IIB Eranskina aplikatu beharko litzateke:

IIB Eranskinak, 4/2005 Foru legearen 4. Atalean, honela dio:

“B. Ingurumen baimen integratuaren eta ingurumen eraginaren ebaluazioaren menpe dauden jarduerak. 4. Industria kimikoak.

2. Oinarrizko produktu kimiko ez-organikoak fabrikatzeko instalazio kimikoak.

d) Amonio kloruroa, klorato potasikoa, karbonato potasikoa (potasa}, karbonato sodikoa (sosa}, perboratoak, nitrato argentikoa.

3. Ongariak fosforoaz, nitrogenoaz, potasioaz fabrikatzeko instalazio kimikoak (ongari sinpleak edo konposatuak).”

Horrenbestez, ematen du Ingurumen Baimen Integratua eta Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa aplikatu behar zaizkion proiektu baten aurrean gaudela, eta ez soilik IEA aplikatu behar zaion proiektu baten aurrean.

Bat dator Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua ondorio horrekin?

Iruñean, 2017ko otsailaren 15ean

## **Galdera, Espazioko Klimarako Espainiako Babes Zibileko Elkartek eta EMPk (AEPCCE) egindako proposamena dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Espazioko Klimarako Espainiako Babes Zibileko Elkartek eta EMPk (AEPCCE) egindako proposamena dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhua Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

- Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak Espazioko Klimarako Espainiako Babes Zibileko Elkartek eta EMPk (AEPCCE) egindako proposamenari buruz? Proposamenaren helburu nagusia da "Erresilientziarako eta autobabeserako neurriak Nafarroan orokorki sustatzeko PNLa, HILF motako (*High-Impact Low-Frequency event*) larrialdi handietarakoa".

Iruñean, 2017ko otsailaren 15ean.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legean ezarritako aurreikuspenak betetzeari eta Mina Muga proiektuari buruzkoa.**

*DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legean ezarritako aurreikuspenak betetzeari eta Mina Muga proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhua Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Dabid Anaut Peñak, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuari:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren Ingurumen Ebaluaziorako Atalak, 2016ko urriaren 7ko datarekin, MAGRAMak Mina Meategia Proiektuaren Ingurumen Eraginaren Ebaluazioari buruz egindako kontsulta bati erantzun zion "Informe ambiental" izeneko dokumentu batekin. Dokumentu horren bukaerako atalean 84/1990 Foru Dekretua aipatzen da, eta aipatzen du proiektuak dekretu hartan ezartzen dena bete behar duela. Ez du egiten, ordea, inolako aipame-



nik 35/2002 Foru Legeak egiten dituen aurreikus-penei buruz, hain zuzen ere beren eraginak koka-tuta dauden udalerrien eremua gainditzten duten proiektuei buruzkoak.

35/2002 Foru Legeak, Lurraldearen Antola-menduari eta Hirigintzari buruzkoak, honela dio:

*“3. atala. Lurraldearen antolamenduko planak*

*37. artikulua. Indarraldia, berrikuspena, aldaketa eta gaurkotzea.*

*1. Lurralde antolamenduko planek mugarik gabeko indarraldia izanen dute.*

*2. Lurralde antolamenduko planaren berrikus-pena esaten zaio lurraldearen egitura orokor eta organikoaren gaineko irizpide berriak onartzeari, lehengoarekiko funtsean desberdina den lurralde-eredua aukeratu delako, edo ezusteko inguruaba-rrek lurraldearen antolamenduan aldaketa eraba-kigarria eragin dutelako.*

*3. Lurralde antolamenduko planen gaurkotze-tzat jotzen da informazioa eta lurralde-analisisa osatzen duten edukiak sartzea, edo haien zehaz-tapenak egoki interpretatzen, zehazten eta ezar-tzen laguntzen dutenak.*

*4. Gainerako kasuetan, lurraldearen antolamen-duko planen zehaztapenak aldatzen badira, pla-naren aldaketatzat joko da.*

*4. atala. Lurralde ekintzako plan zuzentzaileak 38. artikulua. Kontzeptua eta esparrua.*

*1. Lurralde ekintzako plan zuzendariek helburu dute Lurraldearen Antolamenduko Plan batetik eratorritako lurralde-ekintza sektorialak zehaztu, koordinatu eta programatzea. Ekintza sektorial horiek honako hauek garatzeari dagozkio: e-txebizitzetarako edo jarduera ekonomikorako eremu handiak, udalez gaindiko ekipamendu eta zerbitzuak, garraio eta komunikazio sistema eta gainerako lurralde-azpiegiturak, hala nola hornidu-ra eta saneamendua, hondakinen tratamendu eta deuseztatzea, hidraulikoak, telekomunikazioeta-ra-koak, energiarekin zerikusia dutenak edo antzeko beste edozein.*

*2. Lurralde ekintzako plan zuzentzaileek lurzo-ru erreserbak ezarri ahalko dituzte, zehazten dituz-ten asmoetara bideraturikoak, lurzoru horiek beren garapena zaildu edo eragotz dezaketen ekin-tzetatik babesteko xedez eta, halaber, lurzoru horiek beren urbanizazio edo eraikuntza baino lehenago eskuratzeko xedez. Determinazio horiek lotesleak izanen dira ukituak gertatzen diren toki entitateen planeamenduarentzat. Kasua bada, uki-turiko hirigintza planeamendua aldatu eta zehaz-*

*tapen horietara egokitu dadila premiatu ahalko du Nafarroako Gobernuak.*

*3. Lurralde ekintzako plan zuzentzaileak garatu ahalko dira udalez gaindiko plan eta proiektuen, hirigintzako udal planeamenduaren edo obra proiektuen bitartez, euren zehaztapenen arabera, ezertan galarazi gabe haiek egin ahal izatea obren gauzatze materialak edo xede dituzten lur-sailen ezaugarriek behartzen dituzten egoki-tzapenak.*

*4. Lurralde ekintzako plan zuzentzaileen espa-rrua izanen da haiek garatzen duten turralde anto-lamenduko planarena*

*5. atala. Udalez gaindiko plan eta proiektu sek-torialak 42. artikulua. Xedea.*

*1. Udalez gaindiko plan sektorialeak honakoak dituzte xede: jarduketak -etxebizitzaren alorrekoak nahiz ekonomikoak-, edo plan eta politika publiko-en garapena, baldin eta jarduketa edo garapen horien eraginak eta ondorioek, dituzten tamaina, garrantzi edo ezaugarri bereziengatik, gainditu egiten badituzte oinarri dituzten udalerria edo udalerriak.”*

Bistan da Muga Meategiak eta Geoalcaliren gainerako meategi-proiektuek udalerrri baten lurral-de-eremua gainditzten dutela eta haien eragina, lurraldeari dagokionez, ingurumenari dagokionez, eta baita eragin soziala nahiz ekonomikoa ere, Xabier, Zangoza eta Undues de Lerdako –beren egoeratik eragin zuzena jasanen dutenak– ere-mutik kanpo dauden Nafarroako beste udalerrri ba-tzuetara iritsiko dela.

Hori guztia Muga Meategiaren irakurketatik bertatik ere frogatu daiteke, bertan esaten baita era-gin soziologikoa eta ekonomikoa “positibo” iza-nen dela Zangozako eta Pirinioko eskualde osora-ko. Enpresak berak Xabierrekoa eta Zangozako ez diren beste udal batzuetara jo du lanpostuei eta bestelakoei dagokienez bere proiektuak ekarriko dituen “onurak” azaltzeko.

Bistakoa da, halaber, proiektuak aurrera eginez gero, eta Geoalcalik dioen moduan 500 eta 3.500 lanpostu bitarte sortuko balira, zuzenekoak nahiz zeharkakoak, eskualdean eragin handia izanen lukeela horrek, lurraldeko nahiz soziologikoa, eta bizitegi-, zuzkidura- eta industria-lurzoruari eta abarri buruzko aurreikuspenak egin beharko lirate-ke inguruko udalerrietan.

Itxuraz, beraz, osoki aplika litezke Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean Lurraldearen antolamendurako planei (LAP4), Lurralde ekintzako plan zuzentzaileei eta Udalez gaindiko plan eta proiektu sektorialeiei buruz



dauden atalak, eta Muga Meategia proiektuaren tramitazioa ezin da zuzenean egin, meategietarako eta jardueretarako araudia soilik aplikatuz, 84/1990 Foru Dekretuan (Nafarroan industria jarduerak ezartzeari buruzkoa) oinarritutako lurzoru ez urbanizagarriko industria jarduera balitz bezala. Bide batez esanda, dekretu hori UGPSak sortu zituen araudia baino lehenagokoa da.

– Bat dator Departamentua parlamentu-talde honen iritziarekin, alegia, edozein jarduera edo hirigintza-baimen eman baino lehen goian aipatu-

tako lurraldearen antolamenduari buruzko arauetako bat edo batzuk ezarri behar direla?

– Eman al die departamentuak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezartzen dituen agindu horien berri Ingarumen Eraginaren Ebaluazioaren tramitazioaren ardura duten gainerako erakundeei, zuzenean edo zeharka ukitutako udalei eta enpresa sustatzaileari?

Iruñean, 2017ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

## **Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko organoen eta ehunen emate eta transplanteei buruzko programaren koordinaziorako eta kalitaterako egiturak erregulatzen dituen irailaren 15eko 69/2016 Foru Aginduari buruzkoa.**

### **BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitateko organoen eta ehunen emate eta transplanteei buruzko programaren koordinaziorako eta kalitaterako egiturak erregulatzen dituen irailaren 15eko 69/2016 Foru Aginduari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Berriki, eta 1/2013 Foru Legearen esparruan, argitara eman da irailaren 15eko 69/2016 Foru Agindua, Nafarroako Foru Komunitateko organoen eta ehunen emate eta transplanteei buruzko programako koordinazio- eta kalitate-egiturak ezartzen dituen.

Praktikan zer neurri hartu dira foru agindu hori betetzeko?

Zer administrazio-urrats egin dira?

Zer neurri hartuko dira hemendik gutxira? Zer epetan? Aipatu foru aginduan biltzen diren neurriak abiarazteko kronograma zehatz bat eskatzen dugu.

Iruñean, 2017ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso